AGENDA GIPUZKOA 2030: Trantsizioko Gizarte Politikak

# AGENDA GIPUZKOA 2030

**Laburpen exekutiboa 2022**



**2023ko apirila**

# Aurkibidea

**Hitzaurrea** 3
**1. Sarrera: Gipuzkoa, zainketen lurraldea** 4
**2. Trantsizioko gizarte politikak: Gipuzkoa 20>30 Agenda** 4
2.1. Gipuzkoa 20>30 Agendaren helburuak 5
**3. Gipuzkoa 220>30 Agendaren trantsizioko gizarte politiken aurrerakuntza maila 2022an** 6
3.1. Emaitza orokorrak 7
3.1.1. Jarduketen egikaritze orokorra 8
3.1.2. Aurrekontua egikaritzea 8
3.1.3. Trantsizio indizea 9
3.1.3.1. Berrikuntza adierazleak 10
3.1.3.2. Gobernantza kolaboratiboko adierazleak 10
3.1.3.3. Inpaktu adierazleak 11
3.1.3.4. Emaitzen adierazleak 11
3.2. Gipuzkoa 2030 Agendaren emaitzak, politiken eta jarduketen arabera 12
3.2.1. Jarduketa bakoitzaren egikaritze maila 24
3.2.2. Aurrekontu egikaritua 25
3.2.3. Trantsizio indizea 26
3.2.3.1. Berrikuntza adierazleak 26
3.2.3.2. Gobernantza kolaboratiboko adierazleak 27
3.2.3.3. Inpaktu adierazleak 27
3.2.4. Emaitzen adierazleak 28

# Hitzaurrea

Gipuzkoako Lurralde Historikoa 2015etik gizarte politikako hainbat jarduketa ari da garatzen, gizarte berrikuntza, berrikuntza publikoa eta gobernantza kolaboratiboa, arreta eta zainketa ereduaren eraldaketa eta gizarte zerbitzuen kalitatea bermatzeko sistemarena sustatzen dutena.

Trantsizioko gizarte politiken xedea da Gipuzkoa zainketen lurralde bihurtzea. Zainketen lurralde bat da jarraian deskribatutako ezaugarriekin defini daitezkeen eta elkartzen diren prozesuen emaitza.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte politiken arduradun naizenez, konpromisoa hartu nuen agenda bat sortzeko, zainketen lurralderanzko trantsizioa bultzatzeko, eta Trantsizioko Gizarte Politiken Gipuzkoa 20>30 Agenda diseinatu eta onetsi genuen. Gipuzkoa 20>30 Agendak Gipuzkoako gizarte politika guztietarako arreta eta zainketa ereduaren sakoneko eraldaketa proposatzen du, lurraldearen erronka handienetako bat trantsizio demografikoarekin lotuta dagoenez.

Agenda diseinatzeko, lau ekarpen zentraletan oinarrituta diseinatu da:

a) Gipuzkoako gizarte zerbitzuek egindako eta koordinatutako jarduketa nagusiei buruzko balantzea (2015-2020).
b) Gipuzkoako gizarte zerbitzuetan eta arreta eta zainketako sare publikoan COVID-19ak izandako inpaktuari buruz egindako azterlanak.
c) Zahartze osasuntsuko ADINBERRI estrategia egikaritzetik eta Etorkizuna Eraikiz (2016-2022) esparruan egindako jarduketetatik lortutako emaitzak.
d) Etorkizuna Eraikizen ongizate estatuaren etorkizunari buruzko think tankaren esparruan egindako ekarpenak: Ongizate estatuaren etorkizunak, hemen laburtuak: Liburu Zuria: Gipuzkoako Lurralde Historikoko arretaren eta zainketen etorkizuna (2021).

Halaber, konpromisoa hartu genuen zerbitzuen kalitatea eta inpaktu soziala monitorizatzeko eta ebaluatzeko estrategia bat garatzeko, partaidetzazko metodologiak (bai erabiltzaileak, senideak eta ahaideak bai profesionalak eta adituak barnean hartzen dituztenak), joeren analisia eta adierazleen sistema barne.

Monitorizazio eta ebaluazio estrategia horren emaitza da 2022. urteko lehen laburpen exekutibo hau, Gipuzkoa 20>30 Agendaren aurrerapena dakarrena. Orobat, laburpen exekutibo hau Gipuzkoa 20>30 Agendaren ebaluazioaren 2022ko emaitzen lehen txostenaren laburpena da.

Sei hilean behin (bitarteko txostena) eta urtean behin (urteko txostena) Gipuzkoa 20>30 Agendaren ebaluazioaren emaitzen txostenak egingo ditugu, interes talde guztiei kontu emateko politikari jarraituz.

Gainera, etengabe kontu emateko sistema batean ari gara lanean, aipatutako bitarteko eta urteko txostenen kontu ematea osatuko duena eta herritarren, sektoreko eragileen eta gainerako interes taldeen eskura egongo dena datozen hiletan.

Maite Peña
Gizarte Politikako diputatua
Gipuzkoako Foru Aldundia

# 1. Sarrera: Gipuzkoa, zainketen lurraldea

Zainketen lurraldeak gizarte politikak definitzen ditu legezko arauen, esku hartzeko publikoko zerbitzuen eta kontrol tresnen multzo gisa, zeintzuen helburua den kalitatezko zerbitzuak, eraginkorrak eta gardenak bermatzea, bizi ziklo osoan pertsonen zainketa eta bizi kalitatea sustatzera bideratuak. Kalitatea zerbitzuen kalitatea egiaztatzeko eta ebaluatzeko sistemei esker bermatzen da. Eraginkortasuna erabiltzaileengan oinarritutako kudeaketa eredu bizkorrei esker bermatzen da. Gardentasuna, partaidetzazko ebaluazioari eta zainketen prozesu osoan murgildutako eragileentzako komunikazio eta informazio eraginkorrari esker.

Zainketen lurralde bat da jarraian deskribatutako ezaugarriekin defini daitezkeen eta elkartzen diren prozesuen emaitza.

Zainketen lurraldeak *continuum* bat bermatzen du arretan, maila anitzeko gobernantza mekanismo berritzaileak abian jarrita; osasun zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen, gizarte zerbitzuen eta komunitateko zerbitzuen erakunde arteko koordinazioa erraztuta maila guztietan; mapatzeak eginez zaurgarritasunaren eta hauskortasunaren, kasuen kudeaketaren, erreferentziazko profesionalen eta bizi historien inguruan, zainketak errazago pertsonalizatzeko erabiltzaileen lehentasunen eta beharren arabera.

Zainketen lurralderanzko trantsizioa sustatzeko, Gizarte Politikako Departamentuak (Gipuzkoako Foru Aldundia), abian jarri du Gipuzkoa 20>30 Agenda: Trantsizioko Gizarte Politikak. Gipuzkoa 20>30 Agendak Gipuzkoako gizarte politika guztietarako arreta eta zainketa ereduaren sakoneko eraldaketa proposatzen du, lurraldearen erronka handienetako bat trantsizio demografikoarekin lotuta dagoenez.

# 2. Trantsizioko gizarte politikak: Gipuzkoa 20>30 Agenda

Gipuzkoa 20>30 Agenda gida estrategiko bat da, arretaren, zainketen eta laguntzen eredua gorantz eraldatzeko hurrengo 10 urteetan. Gizarte zerbitzuen sistemaren eraldaketa egiaz egiteko, ekintza plan bat proposatu da, 3 politika tipologiak, 12 trantsizio ardatzek eta gizarte politikako 39 jarduketak osatua.

Jarduketa ardatzek eragiketa kutsua ematen diote 20>30 Agendari, apustu egiten baitute arretaren, zainketen eta laguntzen ereduaren trantsizioari buruzko bost arazo nagusi mota lantzeko:

a) COVID-19aren pandemiaren ondoriozko gorabideko behar berriak monitorizatzea, eta gizarte baliabideen sare publikoa egokitzea behar horiei erantzuteko.

b) Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta arretari, zainketei eta laguntzei lotutako langileen ongizatea hobetzea.

c) Esperimentuzko eta berrikuntzako ekimenak sustatzea, alderdi digitala eta gizarte politiketako alor guztietako esku hartze plan berriak garatzea barne.

d) Esperimentuzko jarduketak garatzea zainketen eredua aldatzeko, bai etxeetan bai egoitza zentroetan.

e) Gizarte zerbitzuen gizarte inpaktua eta jasangarritasun ekonomikoa ebaluatzeko sare bat sustatzea, bai eta arretaren, zainketen eta laguntzen ereduaren trantsizioa monitorizatzeko ere.

1. **figura.** Trantsizioko Gizarte Politikak




Iturria: bertan egina

## 2.1. Gipuzkoa 20>30 Agendaren helburuak

### Helburu estrategikoak

20>30 Agendaren helburu estrategikoa da Gipuzkoako Lurralde Historikoko zainketen desinstituzionalizatze prozesua indartzea eta azkartzea, hau da, zainketak eta eraldatzea eta arreten eta zainketen beste eredu baterako trantsizioa errazten duten prozesuak sustatzea, pertsonek komunitatean parte hartzean oinarritutako zainketa eredu baterantz jotzeko.

### Helburu orokorrak:

**1. helburua: COVID-19a prebenitzeko, hartatik babesteko eta hura monitorizatzeko jarduketak garatzea**

**2. helburua: Zainketa eredu berri bat garatzea**
- 2.1. helburu espezifikoa: Zainketen zikloan prebentzioa sustatzea.
- 2.2. helburu espezifikoa: Zainketen tokiko ekosistemak sustatzea.
- 2.3. helburu espezifikoa: Etxeko zainketak sustatzea.
- 2.4. helburu espezifikoa: Zentroetako eta entitateetako zainketak hobetzea.
- 2.5. helburu espezifikoa: Kalitatezko enplegua sustatzea.

**3. helburua: Zainketen gobernantza eredu berriak garatzea**
- 3.1. helburu espezifikoa: Koordinazio soziosanitarioa (instituzioen gobernantza).
- 3.2. helburu espezifikoa: Elkarrizketa soziala sustatzea (antolakuntzako gobernantza).
- 3.3. helburu espezifikoa: Partaidetza soziala sustatzea (gobernantza soziala).

**4. helburua: Zainketen berrikuntza sustatzea**
- 4.1. helburu espezifikoa: Zerbitzuak eta haiei lotutako zentroak digitalizatzea sustatzea.
- 4.2. helburu espezifikoa: Esperimentazio soziala sustatzea.
- 4.3. helburu espezifikoa: Zainketen pertsonalizazioa sustatzea.
- 4.4. helburu espezifikoa: Zainketetarako prestakuntza eredu berriak sustatzea.

**5. helburua: Zainketen ebaluazioa garatzea**
- 5.1. helburu espezifikoa: Zainketa zerbitzuen eta haiei lotutako zentroen kalitatea egiaztatzea.
- 5.2. helburu espezifikoa: Zainketen gizarte politiken partaidetzazko ebaluazioa.
- 5.3. helburu espezifikoa: Trantsizioaren monitorizazioa.

# 3. Gipuzkoa 220>30 Agendaren trantsizioko gizarte politiken aurrerakuntza maila 2022an

2. irudiak laburtu egiten ditu trantsizioko gizarte politikak egituratzen dituzten hiru gizarte politikak.

a) **Kontingentzia politikak (bizkortasuna).** Kontingentzia politikek erreferentzia egiten diote populazioen bizitza sozialari, dela herritar kopuru handi bati edo gizarte politiken lehentasuna diren talde zaurgarri espezifikoei, eragiten dieten, espero ez diren aurreikusi ezinezko gertakarien kontingentzien kudeaketari. Larrialdietan edo espero ez diren gertakarien aurrean, gizarte politikek erantzun bizkorra, azkarra eta erlatiboki asegarria ematen dute, pertsonen segurtasuna eta bizi kalitatea epe laburrean bermatzeko.

b) **Egonkortze politikak (egokitzea).** Egonkortzeko gizarte politikek erreferentzia egiten diote egonkortasun garaietako programen eta gizarte zerbitzuen kudeaketari. Egoera horietan, gizarte zerbitzuek arau esparru batean oinarrituta funtzionatzen dute, zeinak haien ahalmenak, zereginak eta erantzukizunak arautzen dituen. Beraz, gizarte zerbitzuen kudeaketa protokoloz eta era estandarizatuan egiten da, araudiari egokitutako laguntza teknikoarekin eta baliabideekin. Zerbitzu egonkortuak dira, eta, horrenbestez, aurreikusteko modukoak. Aurreikusgarritasuna eta estandarizazioa ezinbestekoak dira gizarte zerbitzuen kalitaterako. Dena den, pertsona edo talde zaurgarrien bizi baldintzek gorabeherak izaten dituzte, goranzko zenbait parametroren barruan; hortaz, gizarte zerbitzuek, talde zaurgarrien bizi baldintzak «egonkortzeko» duten zereginean, egokitzapenerako joera du, eta epe ertainean bizi kalitatea bermatzekoa.

c) **Berrikuntza politikak (aurre hartzea).** Berrikuntzako gizarte politikek erreferentzia egiten diote produktu, prozesu, metodo eta/edo zerbitzu berriak edo hobetuak sortzea sustatzen duten programen estrategiak eta kudeaketa garatzeari, pertsonen bizi kalitatea hobetu ahal izateko. Berrikuntzako gizarte politikak bideratuta daude gizarte zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzera, gizartearen etorkizuneko beharrei eta eskariei aurre hartzea erraztuta, hau da, berrikuntzak garatzeko, epe luzean bizi kalitatea eraldatzeko helburu estrategikoarekin.

**2. figura. Trantsizioko Gizarte Politikak**




Iturria: Gipuzkoa 2030 Agenda: Trantsizioko Gizarte Politikak

## 3.1. Emaitza orokorrak

Jarraian, Gipuzkoa 2030 Agendaren 2022ko monitorizazioaren emaitza orokorrak aurkeztu dira:

**Trantsizioko gizarte politiken 2022ko inpaktua**

43

Esperimentuzko eta berrikuntzako proiektu finantzatu

€ +42.000.000

Milioiko inbertsioa Gipuzkoa 20>30 Agendan, 2022an

14

Zainketen tokiko ekosistema

€ 2.000.000

Berrikuntza proiektu

**Trantsizioko gizarte politiken jardunaren 2022ko emaitzak**

% 59

Trantsizio indizea

% 84

Gobernantza

% 42

Inpaktua

% 83

Berrikuntza

Iturria: Gizarte Politikako Departamentua – Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa 2030 Agendaren 39 jarduketetatik 38ri jarraipena egin zaien; izan ere, 39. jarduketaren («Genero eta hizkuntz berdintasuna sustatzea») jarraipena era ezberdinean planteatu da, transbertsala delako departamentu osoan, eta txertatuta dagoelako G2030 Agenda osoko jarduketa guztietan. Jarduketa horri lotuta, egindako monitorizazioan, jarduketa bakoitzean egiten diren genero eta hizkuntz berdintasunari buruzko jarduerak identifikatu dira lehenik, eta gero eta datu gehiago lortzen hasi da sexuka banatuta.

### 3.1.1. Jarduketen egikaritze orokorra

Besteak beste, plangintzan jasotako jarduketen aurrerakuntza maila neurtu da. Jarraian jasotako taulan laburtzen da 2022ko egoera. Nabarmendu da 12 jarduketa amaitu direla dagoeneko, eta 4 jarduketa hasi gabe daudela. Gainerakoa abian daude, eta askotariko aurrerakuntza mailatan daude: 18 planaren arabera doaz, eta 4k % 50eko baino gutxiagoko aurrerakuntza maila dute.

| Egoera | Jarduketak |
|---|---|
| Amaituta (% 100) | 12 jarduketa |
| Hasita, plangintzari jarraituz | 18 jarduketa |
| Hasita (<% 50) | 4 jarduketa |
| Hasi gabe (2023rako, plangintzaren arabera) (% 0) | 4 jarduketa |

**HASI GABEKO JARDUKETAK:**

- **13. jarduketa:** *Langileen zainketa emozionalerako eta herremanen zainketarako laguntza hobetzea*
- **15. jarduketa:** *Zainketa eredu berriei buruzko prestakuntza sustatzea, herritarrentzat*
- **19. jarduketa:** *Trantsizioko Gizarte Politikei buruzko webgune bat abian jartzea (zainketen lurraldea)*
- **31. jarduketa:** *Gipuzkoan adimen desgaitasuna dutenen partaidetzarako laguntza eta sustapen eredu berria*

### 3.1.2. Aurrekontua egikaritzea

Aurrekontuaren egikaritze mailari dagokionez, datua egikaritutako aurrekontuarena da. **2022an** egikaritutako aurrekontua, guztira**, 42 554 657 eurokoa da**. Dena den, datu hori behin-behinekoa da, eta handitu egingo da, oraindik ere egiteko baitago 4 jarduketaren gastuaren neurketa.

Jarraian egikaritutako aurrekontua ageri da, trantsizioko gizarte politikak egituratzen dituzten hiru gizarte politiken arabera banatuta. Nabarmendu beharra dago berrikuntza politiketan gastua txikiagoa dela, artean ezein jarduketaren daturik ez zelako eskuratu.




### 3.1.3. Trantsizio indizea

Jarduketen trantsizio indizea kalkulatzeko, jarduketa bakoitzaren **berrikuntza adierazleen, gobernantza kolaboratiboko adierazleen eta inpaktu adierazleen** batezbesteko aritmetikoa egiten da.

20>30 Agendaren trantsizio indizea, aldiz, **egonkortze politiken eta berrikuntza politiken trantsizio indizearen** batezbesteko aritmetikoaz kalkulatzen da. Kontingentzia politiketan, ezin da trantsizio indizerik lortu, COVID-19arekin lotutakoak direnez, ez baitagokio trantsizioa neurtzea.

$$\textbf{Trantsizio indizea} = \frac{\textbf{Berrikuntza adierazleak} + \textbf{Gobernantza adierazleak} + \textbf{Inpaktu adierazleak}}{3}$$

**2022an, G20>30 Agendaren trantsizio indizea % 59 izan da.**

Egonkortze politiken trantsizio indizea % 64 izan da, eta berrikuntza politikena, % 54.

Ikus daiteke 2022 amaieran jarduketa gehienek (16) trantsizio indize ertaina dutela (% 31-% 70), baina 4 adierazleren informaziorik ez dago, jarduketak hasi ez direlako. 8 jarduketatan trantsizio indizea altutzat jo daiteke, eta oraingoz 2tan bakarrik lortu da trantsizio indize baxua. Azpimarratu beharra dago orokorrean trantsizio indizeari eragin egin diola jarduketen estaldura maila neurtzeko daturik ezak, eta, beraz, inpaktuaren adierazlearen ehuna txikitu egin da, eta, hortaz, baita trantsizio indizea ere.




Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)

### 3.1.3.1. Berrikuntza adierazleak

Txostenaren aurreko apartatuetan adierazi denez, berrikuntza adierazlea adierazle sintetiko bat da, beste hiru adierazleren bitartez kalkulatua. Gipuzkoa 20>30 Agendaren jarduketa bakoitzerako kalkulatzen da, eta berrikuntzaren dibertsitate mailaren, pertsonalizazio mailaren eta prestakuntza mailaren adierazleen batezbestekoa eginez lortzen da.

**2022an, G20>30 Agendaren berrikuntza indizearen emaitza % 83 izan da.**

Egonkortze politiken berrikuntza indizea % 96 da, eta berrikuntza politikena, % 69.

Informazioa dugun jarduketen berrikuntza adierazleen laburpen grafikoari erreparatuz gero, ondorioztа daiteke jarduketa gehienek berrikuntza maila handia dutela (16, guztira), eta batek bakarrik duela berrikuntza maila baxua. Berrikuntza neurtzea ez dagokien 8 jarduketak kontingentzia politikekin lotutakoak dira.




Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)

### 3.1.3.2. Gobernantza kolaboratiboko adierazleak

Gobernantza kolaboratiboko adierazle hau beste hiru adierazletan oinarrituta kalkulatzen da: antolakuntzako lankidetza maila, erakundeen lankidetza maila eta gobernantza sozialaren maila.

**2022an, G20>30 Agendaren gobernantza indizearen emaitza % 84 izan da.**

Egonkortze politiken gobernantza indizea % 91 da, eta berrikuntza politikena, % 78.

Eskuragarri dagoen informazioarekin ondorioztа daiteke 2022an gobernantza kolaboratiboko maila handia lortu dela (% 71tik gorakoa) 20 jarduketatan. 2 jarduketak soilik dute gobernantza maila baxua. Berrikuntza neurtzea ez dagokien 8 jarduketak kontingentzia politikekin lotutakoak dira.



Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)

### 3.1.3.3. Inpaktu adierazleak

Jarduketen trantsizio maila kalkulatzeko erabiltzen den hirugarren adierazle sintetikoa da, eta xede populazioaren estaldura mailaren adierazleen eta berrikuntzako jardunbide egokien transferentzia mailaren batezbestekoaren bidez kalkulatzen da.

**2022an, G20>30 Agendaren inpaktu indizea % 42 izan da.**

Egonkortze politiken inpaktu indizea % 45 da, eta berrikuntza politikena, % 39.

Grafikoan ikus daitekeenez, inpaktu maila altuko 6 jarduketa bakarrik daude, eta, gainera, nabarmendu beharra dago jarduketa askok (11) maila txikia dutela. Azken horren arrazoia da sarri ez dagoela estaldura mailaren daturik, eta horrek murriztu egiten du inpaktu adierazlea (% 0n gelditzen baita), baita jarduketen eta agendaren trantsizio indizea ere.

Berrikuntza neurtzea ez dagokien 8 jarduketak kontingentzia politikekin lotutakoak dira.




Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)

### 3.1.3.4. Emaitzen adierazleak

2022an, jarduketa bakoitzerako emaitzen adierazleak definitzeko egin da lan, jarduketa bakoitza egikaritzean lortutako emaitzak neurtzeko. 2023an, jarduketen arduradunek lanean jarraituko dute datuak lortu ahal izateko eta definitutako adierazleak neurtzeko.

## 3.2. Gipuzkoa 2030 Agendaren emaitzak, politiken eta jarduketen arabera

Jarraian, Gipuzkoa 2030 Agendaren jarduketa bakoitza 2022an monitorizatzearen emaitza aurkeztu da:

### Kontingentzia politikak COVID– 19ari lotutako jarduketak

Gizarte politikek zerikusia duten testuinguru sozial orotan gertatzen dira kontingentziak, hau da, espero ez diren gertakariak edo, are, aurreikusi ezinezkoak, populazioen bizitza sozialari eragiten dietenak, hala populazioaren zati handi bati nola zaurgarritzat jotzen diren talde espezifikoei, hau da, gizarte politiken lehentasuna direnei erresilientzia gaitasun txikia dutelako eta haiei eragiten dietelako lehenik kontingentzia sozialek, ekonomikoek eta naturalek.

| **1. jarduketaren izenburua.** | Norbera babesteko hornidurak bermatzea (COVID-19) | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen helburua da osasungintzako materialaren hornidura (NBEak, maskarak, eskularruak eta abar) foru zentroetarako, norberaren babesa bermatzeko, bai erabiltzaileena bai profesionalena. | | | | |
| Helburuak | NBE-en hornidura bermatzea foru sareko zentroetan. | | | |
| Xede populazioa | Foru sareko zentroetako erabiltzaileak eta langileak | | | |
| Inpaktu eremua | Foru sareko zentroak | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 1 305 323 € | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

| **2. jarduketaren izenburua** | Monitorizazio adimenduna, COVID-19a garaiz detektatzeko eta zaintzeko. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa horren helburua da mapatzeko eta PCR edo antigeno testak aplikatzeko estrategiak indartzea, alerta goiztiarrak egiteko, egoitza zentroetako kutsatze posibleen inguruan. Langileen eta erabiltzaileen probak eta testak irizpide epidemiologikoen arabera egingo dira. Kutsatzeen gorakada berrien arriskuen analisia, egoitza zentroetako mapatzeari esker. | | | | |
| Helburuak | Mapatzeko eta PCR edo antigeno testak aplikatzeko estrategiak indartzea, alerta goiztiarrak egiteko foru sarean. | | | |
| Xede populazioa | Foru sareko zentroetako erabiltzaileak eta langileak. | | | |
| Inpaktu eremua | Foru sareko zentroak. | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 93 | 25.000 € | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

| **3. jarduketaren izenburua** | COVID-19aren aurkako txertatze kanpaina koordinatzea. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen helburua da zaurgarriak izan daitezkeen herritarrak txertatzeko ekintzak koordinatzea (adineko pertsonak eta egoitza zentroetako profesionalak), Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak ezarritako txertatze kanpainaren esparruan. | | | | |
| Helburuak | Zaurgarriak izan daitezkeen herritarrak txertatzeko ekintzak koordinatzea, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak ezarritako txertatze kanpainaren esparruan. | | | |
| Xede populazioa | Foru sareko zentroetako erabiltzaileak eta langileak | | | |
| Inpaktu eremua | Foru sareko zentroak | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| % 100 | 361.363 € | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

| **4. jarduketaren izenburua** | Adinekoentzako bisita araubidea eguneratzea egoitzetan. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen xedea da bisiten araubidea eguneratzea eta egokitzea adinekoentzako egoitzetan. Bisiten araubidea malgutze hori ez da orotarako izango; aitzitik, kasuz kasu aztertuko da, zentro bakoitzaren baldintzen arabera, eta aintzat hartuko dira osasun irizpideak, baita psikosozialak ere. Teknologia berrien erabilera ere kontuan hartuko da, aurrez aurreko bisiten araubidearen estrategia osagarri gisa. Halaber, gune seguruak gaituko dira paseatzeko eta bisitak egiteko, zentroen inguruan, bisita araubidea errazteko. | | | | |
| Helburuak | Adinekoen egoitzetan bisita araubidea egokitzea eta malgutzea. | | | |
| Xede populazioa | Foru sareko zentroetako erabiltzaileak eta senideak | | | |
| Inpaktu eremua | Adinekoen eta desgaitasuna dutenen egoitza zentroak. | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 334.859 € | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

| **5. jarduketaren izenburua** | COVID-19a kudeatzeko etika kodeak berrikustea. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen helburua da abian jartzea «hausnarketa etikoko talde» bat, arazo zail eta konplexuetarako irtenbiderik egokiena bilatzeko, ahotsa emateko langileei, erabiltzaileei –familiei–, zentroetako kudeatzaileei eta etikan adituei. Zehazki, hausnarketa etikoko taldeak etika kode berriak gomenda ditzake arreta eta zainketa hobeto kudeatzeko, bereziki COVID-19ari lotuak. | | | | |
| Helburuak | Arreta eta zainketak kudeatzeko protokolo berriak hobetzea, COVID-19aren protokoloak hobeto kudeatzeko etika kode berri edo berrikusietan oinarrituta. | | | |
| Xede populazioa | Instituzioak, entitate kudeatzaileak, zerbitzuetako erabiltzaileak, langileak eta senideak. | | | |
| Inpaktu eremua | Foru sareko zentroak | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 2.000 € | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

| **7. jarduketaren izenburua** | Gipuzkoan COVID-19tik sortutako behar sozial berrien analisia. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen xedea da COVID-19tik sortutako behar sozialen mapa egitea (egungo egoera eta etorkizuneko aurreikuspena), COVID-19aren olatuek ukitutako populazioetan sortzen ari diren behar berriei erreparatuta. Zerbitzuak hobetzeko eta berritzeko gomendio sorta bat egitea, identifikatutako behar berriei erantzuteko. | | | | |
| Helburuak | Behar berrien mapa egitea eta gomendioak egitea haiei erantzuteko. | | | |
| Xede populazioa | Sistemako eragile guztiak. | | | |
| Inpaktu eremua | Gizarte Politikako Departamentuari lotutako baliabide sozial guztiak. | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 80 | 15.000 € | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

| **8. jarduketaren izenburua** | Zentroak COVID-19aren egoera berrira egokitzea. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen helburua da COVID guneak sortzea zentroetan, eta inguru abegikor, irisgarri eta seguruak diseinatzea erabiltzaileentzat, baita ahaleginak handitzea ere egoitzetan bete gabeko plazen ituntzea mantentzea, prebentzioz adinekoentzako egoitza zentroetako eta eguneko zentroetako plazak murriztea eta zentroak COVID-19aren egora berrira egokitzeko laguntza ekonomikoak onestea ere. | | | | |
| Helburuak | Gipuzkoako baliabide sozialen sare publikoan etengabeko alerta-prebentzio-jagoletza egoera aktibatzea. | | | |
| Xede populazioa | Entitate kudeatzaileak, erabiltzaileak, langileak eta senideak. | | | |
| Inpaktu eremua | Egoitza zentroak, eguneko zentroak. | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 93 | 940.000 € | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

| **9. jarduketaren izenburua** | Gizarte zerbitzuen entitate hornitzaileen konpromisoa indartzea. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen helburua da gizarte zerbitzuen entitate hornitzaileentzako laguntza indartzea, tarifak atzeraeraginez eguneratuta, Gipuzkoako gizarte zerbitzuek iraun dezatela bermatzeko, COVID-19aren inpaktuak sortutako egoera berriari erreparatuta. | | | | |
| Helburuak | Entitate hornitzaileentzako laguntza indartzea. | | | |
| Xede populazioa | Entitate kudeatzaileak, erabiltzaileak, langileak eta senideak. | | | |
| Inpaktu eremua | Egoitzak | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 16.216.077 € | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

## Egonkortze politikak: Gizarte zerbitzuen garapenari lotutako jarduketak

Gizarte zerbitzuek arau esparru batean oinarrituta funtzionatzen dute, zeinak haien ahalmenak, zereginak eta erantzukizunak arautzen dituen. Beraz, gizarte zerbitzuen kudeaketa protokoloz eta era estandarizatuan egiten da, araudiari egokitutako laguntza teknikoarekin eta baliabideekin. Zerbitzu egonkortuak dira, eta, horrenbestez, aurreikusteko modukoak. Aurreikusgarritasuna eta estandarizazioa ezinbestekoak dira gizarte zerbitzuen kalitaterako. Dena den, pertsona edo talde zaurgarrien bizi baldintzek gorabeherak izaten dituzte, goranzko zenbait parametroren barruan; hortaz, gizarte zerbitzuek, talde zaurgarrien bizi baldintzak «egonkortzeko» duten zereginean, egokitzapenerako joera du, eta bizi kalitatea bermatzekoa.

| **10. jarduketaren izenburua** | Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa egokitzea eta aplikatzea. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen xedea da Gipuzkoako gizarte zerbitzuen mapa egitea (mendekotasuna eta desgaitasuna, gizarte inklusioa, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak eta indarkeria matxistako biktima diren emakumeak), eskaintza publikoa zainketen politika berriarekin lotutako egiturazko behar berrietara egokitzeko. | | | | |
| Helburuak | Plaza berrien eta zerbitzuen eskaintza egokitzea aurreikusitako behar berrietara. | | | |
| Xede populazioa | Sistemako eragile guztiak. | | | |
| Inpaktu eremua | Gizarte zerbitzu guztiak (Gizarte Politikako Departamentua) | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 5.739.502 € | % 100 | % 0 | % 100 |

| Trantsizio indizea | % 67 |
|---|---|

| 11. jarduketaren izenburua | Gipuzkoako lurralde historikoko egoitza zentroen sarea mailaka egokitzea egoitzako arreta eredu berrira. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen xede orokorra da finantzaketa lerro berri bat sustatzea egoitza ereduak hiru lan lerrotan garatzeko: a) Eredu berritzailean oinarritutako egoitza zentro berriak eraikitzea bultzatzea; b) Arkitektura arloan egungo egoitzak berritzea egoitza arretako eredu berrira mailaka egokitzeko. Egokitzearen xedea da bizikidetza unitateak hobetzea eta COVID-19ari aurre egiteko egokitzea; c) Egungo egoitzetako inguru fisikoak egokitzea eta hobetzea (espazio eta arkitektura baldintzak). | | | | |
| Helburuak | a) Eredu berritzailean oinarritutako egoitza zentro berriak eraiki daitezen bultzatzea; b) Arkitektura arloan egungo egoitzak berritzea egoitza arretako eredu berrira egokitzeko; c) Egungo egoitzetako inguru fisikoak egokitzea eta hobetzea (espazio eta arkitektura baldintzak). | | | |
| Xede populazioa | Zentroetako entitate kudeatzaileak, erabiltzaileak, langileak eta langileak. | | | |
| Inpaktu eremua | Egoitza zentroak. | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 70 | 10.600.000 € | % 75 | % 0 | % 100 |
| **Trantsizio indizea** | **% 58** | | | |

| 28. jarduketaren izenburua | Haurren babesgabetasunaren prebentziorako eta arretarako plan berria ezartzea. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen helburua da haurren babesgabetasunaren prebentziorako eta arretarako plan berri bat diseinatzea eta ezartzea (babesgabetasun arriskua, babesgabetasun arina, babesgabetasun larria), adingabearen bizi kalitatea hobetzeko estrategiak erabilita: larrialdiko harrera, egoitza harrera, familiako harrera eta adopzioa. | | | | |
| Helburuak | Haurren babesgabetasunaren prebentziorako eta arretarako bide orria definitzea datozen urteetarako. | | | |
| Xede populazioa | Haurren babesgabetasunaren arretarekin lotutako Gipuzkoako lurralde historikoko instituzioak eta eragileak. | | | |
| Inpaktu eremua | Gizarte zerbitzuetako sistema. | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 45 | 10.000 € | % 78 | % 56 | % 93 |
| **Trantsizio indizea** | **% 76** | | | |

| 29. jarduketaren izenburua | Indarkeria matxistako biktimen arretarako eredu integral berria zabaltzea. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen xedea da eredu integral berri bat diseinatzea eta ezartzea, indarkeria matxistako biktimen arretarako bide bat definitzen duena, ikuspegi feministan oinarritutako ikusmolde berri bat txertatuta, emakume biktimak ahaldunduko dituena zaurgarritasun egoera horretatik irteteko. Ereduak birdefinitu egingo ditu aholkularitza juridikoko eta arreta psikosozialeko zerbitzuak eta indarkeria matxistako biktima diren emakumeentzako eta seme edo alabentzako esku hartze psikosozialeko zerbitzuak. Eredua plan batean egituratuta dago, zeinak jarduketak garatzen dituen baliabide sozial oso horretan plangintza, jarraipena eta ebaluazioa hobetzeko. | | | | |
| Helburuak | Indarkeria matxistako biktimen arretarako bide bat definitzea, ikuspegi feminista oinarritutako ikusmolde berri bat txertatuta, emakume biktimak ahaldunduko dituena zaurgarritasun egoera horretatik irteteko. | | | |
| Xede populazioa | Indarkeria matxista arretarekin lotutako Gipuzkoako lurralde historikoko instituzioak eta eragileak. | | | |
| Inpaktu eremua | Gizarte zerbitzuetako sistema | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| % 45 | 130.169 € | % 100 | % 100 | % 93 |
| **Trantsizio indizea** | **% 98** | | | |

| **30. jarduketaren izenburua** | Gizarte inklusioko plan berria zabaltzea. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Jarduketa honen helburua da gizarte inklusioko plan berria diseinatzea eta ezartzea, gizarte inklusioko egoeran dauden pertsonen inklusio ibilbide berriak definitzen dituena. Planak sustatzen du gizarte esklusioko egoeran daudenen gizarteratze sozial eta ekonomikorako aukera berriak sortzea, lurralde politiken transbertsaltasuna indartzea (politika soziosanitarioekiko eta bestelako politikekiko –adibidez, etxebizitzakoak– koordinazioa hobetuz) eta komunikazio eta sentsibilizazio estrategia bat garatzea, gizarte inklusioari buruzkoa, herritarrak inplikatuta. | | | | |
| Helburuak | Inklusio ibilbide bat definitzea gizarte esklusioko egoeran daudenentzat, haien gizarteratze sozial eta ekonomikorako aukera berriak sortuta. | | | |
| Xede populazioa | Gizarte inklusioarekin lotutako Gipuzkoako lurralde historikoko instituzioak. | | | |
| Inpaktu eremua | Gizarte zerbitzuetako sistema | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 70 | 945.494 € | % 100 | % 70 | % 93 |
| **Trantsizio indizea** | **% 88** | | | |

| **31. jarduketaren izenburua** | Gipuzkoan adimen desgaitasuna dutenen partaidetzarako laguntza eta sustapen eredu berria. | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ekimen honen asmoa da adimen desgaitasunaren sektoreko entitateen jarduketa esparru berri baten inguruan hausnartzea, Gipuzkoan pertsona horien eta haien familien laguntzarako eta partaidetza eta bizi kalitatea sustatzeko eredu bat definitzeko eta haren alde egiteko, eta haren jasangarritasunean aurrera egiteko beharrezko elementuen inguruan ere bai. Hausnarketa horretan sartuko da pertsonentzako eta haien familientzako arretako, laguntzako eta lagun egiteko zerbitzuak eta programak garatzea: bai 185/2015 Dekretuan, Zorroari buruzkoan, identifikatutako zerbitzuetan bai bestelako zerbitzu eta jarduera berritzaile batzuetan ere, behar berrietarako erantzunak aurreikusita. Haren barruan egongo da orobat gizartearen partaidetza, herritartasun aktiboko jarduna eta interes orokorreko bestelako jarduera sozialak sustatzea ere, pertsona horien gizarte inklusiorako eta aukera berdintasunerako. | | | | |
| Helburuak | Adimen desgaitasunaren sektoreko entitateen jarduketa esparru berri baten inguruan hausnartzea, Gipuzkoan pertsona horien eta haien familien laguntzarako eta partaidetza eta bizi kalitatea sustatzeko eredu bat definitzeko eta haren alde egiteko. | | | |
| Xede populazioa | Adimen desgaitasunaren sektoreko entitateak, pertsonak eta familiak | | | |
| Inpaktu eremua | Gizarte zerbitzuetako sistema | | | |
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| **Trantsizio indizea** | **Planifikatua** | | | |

